



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN TXOSTENA HAGINLARIEN EUSKAL KONTSEILUAREN ESTATUTUEI BURUZ

Osoko Bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Ibon Álvarez Casado jauna, idazkaria

Laburpena

TOC2013ko abenduaren 17an, Lehiaren Euskal Agintaritzako Osoko Bilkurak erabaki du txosten hau argitaratzea Haginlarien Euskal Kontseiluaren estatutuei buruz.

I. AURREKARIAK

1. 2013ko abuztuaren 12an, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak idazki bat aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agintaritzaren aurrean, Haginlarien Euskal Kontseiluaren estatutuen aldaketaren kopia bat erantsita, Lehiaren Euskal Agintaritzak jakinaraz dezan ea aldaketa bat datorren lehia babesteari buruz indarrean dagoen araudiarekin.

II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK

2. Otsailaren 2ko 1/2012 Legeak, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoak, 3.3. eta 10. artikuluetan erakundeari lehia sustatzeko ematen dizkion eskumenak erabiliz egin dugu txosten hau. Horrelako eskumenen helburua da Euskadiko merkatuetan benetako lehia sustatzea —(eta, ahal dela, bermatzea)—. Horretarako, zigorrak ez diren neurriak hartzen ditu Lehiaren Euskal Agintaritzak eta, horrelako neurrien esparruan, besteak beste, administrazio publikoekin harremanetan jartzen da.

3. Gure antolamendu juridikoak lanbide-elkargoei buruz arautzen duena Espainiako Konstituzioan oinarritzen da. Hain zuzen ere, zera xedatzen du Konstituzioko 36. artikulua: "Legeak lanbide-elkargoen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jarduera



arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute".

Premisa hau izan behar dugu abiapuntu: elkargodun lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia defendatzeko 15/2007 Legea bete behar dute, bere osotasunean¹. Lehiari buruzko araudiarekiko mendekotasuna are gehiago nabarmendu da Zerbitzuei buruzko Erkidegoko Direktiba aplikatzeagatik azkenaldian araudian izan diren aldaketak direla eta². Estatuan zein Euskal Autonomia Erkidegoan, lanbide-elkargoei buruzko araudiaren oinarria da Zerbitzuei buruzko Erkidegoko Direktibaren aurreko araudi bat: lanbide-elkargoei buruzko Estatuko legea, 1974koa³, eta 18/1997 Legea, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta -kontseiluei buruzkoa⁴. Dena den, Direktiba Estatura zein Euskal Autonomia Erkidegora aldatzeko hainbat arau ditugu gaur egun, aldaketa ugari eragin dituztenak arau horietan eta, beraz, baita lanbide-elkargoen funtzionamendu-araubidean: batik bat, 17/2009 eta 25/2009 legeak Estatuan, eta 7/2012 Legea EAEn⁵.

18/1997 Legearen "xede da tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarrizko legerian eta/edo arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da". Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik dituen eskumenak erabiliz egindakoa da araudia, Espainiako Konstituzioko 139. artikuluari kalte egin gabe betiere. Hain zuzen ere, zera xedatzen du artikulua horrek: "Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea".

4. Lanbide-kontseiluek —profesionalen elkargoak ez bezala, Konstituzioak ez ditu aipatzen— araudi bera bete behar dute.

2/1974 Legeko hirugarren xedapen gehigarriaren bigarren paragrafoak honakoa dio, 25/2009 Legearen arabera: "Elkargodun korporazioak dira Elkargoen Kontseilu Nagusi edo Gorena, Estatuko elkargoak, elkargoen autonomia-kontseiluak eta lanbide-elkargoak".

18/1997 Legeak, berriz, 41. artikuluan arautzen ditu kontseiluak, eta zera agintzen du: "Lanbideren batek elkargo-antolaketa duen guztietan izango da kontseilu profesionala

¹ 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, lehia defendatzekoa.

² 2006/123/EE Direktiba, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko abenduaren 12koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa.

³ 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, lanbide-elkargoei buruzkoa. eta 7/1997 Legea, apirilaren 14koa, lurzorua liberalizatzeko neurriak ematekoa eta lanbide-elkargoei buruzkoa.

⁴ 18/1997 Legea, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa.

⁵ 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa; 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, Zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legeari egokitzeko zenbait lege aldatzen dituena; eta 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, Eusko Legebiltzarrarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa.



—bat baino ez— osatzeko aukera. Horretarako, dagozkion elkargo profesionalak batu beharko dira".

Bigarren paragrafoak zera xedatzen du: "Kontseilu profesionalek nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa dute, eta beren helburua tituludun lanbidearen ordezkari gorenak izatea eta defentsa egitea da, betiere, gizartearen interes eta premia orokorrekin bat eta lurralde-esparrutzat Euskal Autonomia Erkidegoa hartuta".

5. Lanbide-kontseiluek araudiari men egin behar izateak ez du esan nahi estatutuen edo beste arau batzuen hitzez hitzeko testuek bakarrik men egin behar diotela araudiari; aitzitik, kontseiluen jardun osoak men egin behar dio. Hori dela eta, estatutuen testua gorabehera, kontseiluek eta elkargoek ezin dute onartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, eta ezin dute ezarri horrelako betebeharrak edo eskakizunik, lehia babesteko legedia urra baitezakete⁶.

III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIAREN GAINKO HAUSNARKETAK

A) Kontseiluaren berezko eginkizunak

6. 18/1997 Legeko 41.2. artikulua zera xedatzen du: "Kontseilu profesionalek nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa dute, eta beren helburua tituludun lanbidearen ordezkari gorenak izatea eta defentsa egitea da, betiere, gizartearen interes eta premia orokorrekin bat eta lurralde-esparrutzat Euskal Autonomia Erkidegoa hartuta".

42. artikulua arabera, hauek dira lanbide-kontseiluen berezko eginkizunak:

- a) Lanbidearen arau deontologiko komunak jaso eta sortzea.
- b) Bere estatutuak onartu eta aldatzea eta, atal honetako bigarren zenbakian xedatutakoarekin bat, lanbidearen jarduna arautzea.
- c) Elkargo profesionalen arteko auziak konpontzea arbitraiaren bidez.
- d) Elkargoen ekintzen aurkako errekursoak erabakitzea.
- e) Diziplina-agintea erabiltzea, 19.2 atalaren arabera.
- f) Arau-egitasmoak direla-eta Gobernuak eskatzen dizkien irizpenak egitea, 54. artikulua arabera.
- g) Kontseiluaren aurrekontuak onartzea eta elkargoek gastuetan izan behar duten partaidetza hein berekoa izan dadin, partaidetza hori zuzen zehaztea.
- h) Jarduera profesionala legezkoa eta egokia den eta elkargo profesionalen funtzionamendua zuzena den begiratzea, helburua herritarrekiko errespetua eta herritarren eskubideak zaintzea izanik. Elkargoen funtzionamenduak eragindako kexak konpontzea.
- i) Hutsuneak betetzeko asmoarekin betiere, kasuan kasuko lanbidearekin zerikusia duten erakundeak, zerbitzuak eta jarduerak sustatu, sortu eta antolatzea kultura sustatzeko, gizarte-laguntza emateko, osasun-laguntza

⁶ LEHIAREN ESPAINIAKO BATZORDEA: *Informe sobre los Colegios Profesionales tras la transposición de la Directiva de Servicios*, Madril, 2011, 22. or. eta hur.



emateko eta lankidetzaz indartzeko. Era berean, lanbiderako komenigarriak diren itun eta akordioak ere egingo dituzte administrazioarekin eta dagozkion erakunde eta entitateekin.

j) Beste edozein legeriak agintzen dizkienak.

7. Haginlarien Euskal Kontseiluaren estatutuek 4. artikuluan arautzen dute gaia:

4. artikulua. Eginkizunak eta eskumenak

Hauek dira Euskal Kontseiluaren eginkizunak:

- a) Kontseilua osatzen duten elkargo ofizialen jarduna koordinatzea.
- b) Lanbidea lurraldean eta Kontseilu Nagusiaren aurrean ordezkatzeko.
- c) Lanbidearen arau deontologiko komunak prestatzea.
- d) Bere estatutuak bere kabuz aldatzea, estatutu hauek xedatzen dutenarekin bat, muga bakarria dagoela: antolamendu juridikoak ezartzen dituenak.
- e) Kontseilua osatzen duten elkargoen arteko gatazkak ebaztea.
- f) Elkargoen egintza eta erabakien kontrako errekursoak ebaztea, estatutu hauetako IV. tituluak dioenarekin bat.
- g) Diziplina-ahalmena erabiltzea Euskal Kontseiluko kideen eta Kontseilua osatzen duten elkargoetako gobernu-batzarretako kideen gainean.
- h) Bere aurrekontua onartzea.
- i) Elkargoen Euskal Kontseiluaren gastuetarako egiten duten ekarpen ekonomikoa zehaztea.
- j) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak onartu aurretik, txostenak egitea lanbideko elkargoak bat egiteko, xurgatzeko, banantzeko eta desegiteko proiektuei buruz.
- k) Administrazio publikoekiko lankidetzaz-hitzarmenek ezartzen dizkieten eginkizunak betetzea.
- l) Txostenak egitea Euskal Autonomia Erkidegoak arau-proiektuak egiten dituen profesionalen jardunaren baldintza orokorreari buruz eta lanbidearen eginkizunei, zerbitzu-sariei eta bateraezintasun-araubideari buruz —zerbitzu-sariei buruzkoak, horiek tarifa edo zerga bidez finkatzen badira—.
- m) Lanbidearentzako onuragarritzat jotzen den jardura oro egitea.
- n) Euskal Autonomia Erkidegoko elkargo ofizialeko kideen errolda prestatzea eta eguneratzea.
- o) Lanbidearen ordezkariak izendatzea, Euskal Administrazio Publikoko kontseilu eta aholkularitza-organoetan parte hartzeko.
- p) Begiratzea Euskadiko haginlarien jarduna osasun publikoaren interesekin bat etor dadin.
- q) Kontseilu Nagusiari laguntza ematea eskatu egiten dionean, lurralde-esparrutzat Euskal Autonomia Erkidegoa hartuta, eta hark bere esku uzten dituen eskumenak erabiltzea, ezartzen dizkion moduan eta baldintzetan.
- r) Beste erakunde batzuekin elkarlanean edo harremanetan jardutea, Estatu barruan zein nazioartean, lanbidearen esparruan, Kontseilu Nagusiaren eskumenei kalte egin gabe betiere: estomatologia-eskolekin, odontologia-fakultateekin, medikuntza-fakultateekin, Nazioarteko Hartz Federazioarekin, beste herrialde batzuetako elkargoekin...
- s) Indarrean dagoen legediak eta estatutu hauek egokitzen dizkieten beste eginkizun guztiak betetzea.

8. Artikulu horrek gainditu egiten ditu, nabarmen gainditu ere, 18/1997 Legeak lanbide-elkargoetako kontseiluei egokitzen dizkien eginkizunak, Legeak berak egokitzen



dizkienak bakarrik aipatu beharko bailituzke. Hain zuzen ere, a), b), i), j), k), m), n), o), p), q), r) eta s) atalak kendu beharko lirateke, eta d), e), i), eta l) atalak aldatu, 18/1997 Legea egokitzeko. Era berean, 18/1997 Legeko 42.h) artikulua ezartzen duen eginkizuna aipatu beharko lukete estatutuek; alegia, "jarduera profesionala legezkoa eta egokia den eta elkargo profesionalen funtzionamendua zuzena den begiratzea, helburua herritarrekiko errespetua eta herritarren eskubideak zaintzea izanik. Elkargoen funtzionamenduak eragindako kexak konpontzea".

B) Elkargoko kide egiteko betebeharra

9. Espainiako Konstituzioko 36. artikulua dakar elkargoei buruzko araudi konstituzionala. Bada, Konstituzio Auzitegiak interpretatu egin du, eta zera finkatu du: "Elkargo bateko kide egiteko betebeharra interes publiko bati erantzun behar zaionean bakarrik da legezkoa Konstituzioaren ikuspegitik" ⁷. Horrenbestez, Konstituzio Auzitegiak utzi egiten dio legegileari, egoki baderitza, profesionalen elkargoetan elkartzeko eta lanbidea aukeratzeko askatasunak mugatzen –bereziki, elkargo bateko kide egiteko betebeharra ezartzea—, lanbide jakin batzuekin loturiko interes publikoek justifikatzen badute betiere⁸.

17/2009 Legeak, berriz, 2006/123 Direktiba, Zerbitzuei buruzkoa, Estatura aldatzen du, eta elkargo bateko kide egiteko betebeharra ezartzea baimentzen du, salbuespen gisa, kasu hauetan:

- Ordena publikoa, segurtasun publikoa, osasun publikoa edo ingurumenaren babesa dela-eta justifikatuta dagoenean [12. art.]; - eskakizuna diskriminatzailea ez denean, hau da, agintaritzaren eskudunaren lurraldean kokatzearen edo nazionalitate jakin bat izatearen arabera diskriminatzen ez duenean, ez zuzenean, ez zeharka [5. art.];

- beharrezkoa denean, hau da, interes orokorreko premiazko arrazoi batek justifikatzen duenean [5. art.]; - helburua lortzeko egokia denean, hau da, emaitza bera lortzeko neurri hoberik ez dagoenean eta, beraz, helburua lortzeko tresnarik onena elkargo bateko kide egiteko betebeharra ezartzea denean [5. art.];

- eta araubidea ezartzen duen Legeak behar bezala arrazoitzen duenean [5. art.].

Euskal Autonomia Erkidegoan, 18/1997 Legeko 30.1. artikulua arautzen du lanbide jakin batean jarduteko lanbide-elkargo bateko kide egiteko betebeharra ezartzeko aukera. Hain zuzen ere, xedapen horrekin bat, "lanbide kolegiatuetan jarduteko ezinbesteko baldintza da dagokion elkargoko kide izatea, **legeak hori horrela**

⁷ Konstituzio Auzitegiaren 89/1989 Epaia, maiatzaren 11koa. Ildo berean, Konstituzio Auzitegiaren 330/1994 Epaia, abenduaren 15ekoa, kide egitea borondatezkoa den elkargoa baimentzen dituena, eta Konstituzio Auzitegiaren 76/2003 Epaia, apirilaren 23koa, Konstituzioaren aurkakotzat duena toki-administrazioko idazkari, kontu-hartzaile eta diruzainak elkargo bateko kide egiteko betebeharra ezartzea, horrelakoek ez baitituzte betetzen lanbidearen antolamendurekin lotuta Konstituzioaren ikuspegitik garrantzitsuak diren helburu eta eginkizun publikoak.

⁸ Ildo berean, Estatutik kanpo, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1983ko otsailaren 10eko Epaia (*Le Compte, Van Leuven eta De Meyere vs Belgika*), baita 1993ko ekainaren 30ekoa, A seriea, 264 (*Sigurdur A. Sigurjónsson vs Islandia*), neurritz kanpokotzat duena taxigidari bati taxi-gidarien erakunde bateko kide egiteko legezko betebeharra ezartzea.



ezartzen duenean⁹. Hau da, elkargo bateko kide egiteko betebeharra lege-mailako arau batek ezartzen duenean bakarrik jo daiteke zuzenbidearen arabera kotzat.

Gainera, elkargo bateko kide egiteko betebeharra lege-mailako arau batek ezarri behar du 15/2007 Legeko 4. artikulua babesteko badu¹⁰.

Oro har, 25/2009 Legeak lanbide batean sartzeko eta aritzeko mugak ezabatu zituen, baina etorkizuneko araudi baten esku utzi zuen jarduera-erreserbak eta elkargo bateko kide egiteko betebeharra aldatzea¹¹. Gaur egun, 2/1974 Legeko 3.2 artikulua arabera, Estatuko lege batek agintzen duenean bakarrik ezar daiteke elkargo bateko kide egiteko betebeharra lanbide jakin batean jarduteko. Dena den, legez arautzen ez den bitartean zer lanbidetan den nahitaezkoa elkargo bateko kide egitea, 25/2009 Legeko laugarren xedapen iragankorrari jarraiki, hura indarrean sartu zenean indarrean zeuden betebeharrekin indarrean jarraituko dute. Horregatik, elkargo bateko kide egiteko betebeharra legezkoa da behin-behinean, 25/2009 Legea indarrean sartu baino lehen ezarritakoa bada betiere, nahiz eta ez ezarri maila egokiko arau batek.

10. Osasun-arloko lanbideetan, elkargo bateko kide egiteko betebeharra zegoen lehen, eta azaroaren 21eko 44/2003 Legeak, osasun-arloko lanbideak antolatzeak, eutsi egiten dio, esan gabe bada ere, zera xedatzen baitu: "Osasun-arloko lanbide batean aritzeko, nor bere kontura aritu edo besteren kontura aritu, beharrezkoa da horretarako berriaz gaitzen duen titulu ofiziala edo 2.4. artikulua arautzen duen egiaztagiria izatea, eta artikulua horrek, aplikatu beharreko gainerako legeak eta lanbide-elkargoei buruzko arauak xedatzen dutenari jarraitu behar zaio"¹².

Aurrez, abenduaren 23ko 2828/1998 Errege Dekretuak, odontologo eta estomatologoaren estatutu orokorrak eta Kontseilu Nagusiarenak onartzen dituenak, zera xedatu zuen, 12. artikuluan:

"Odontologoak hortzetako, ahoko, egitura estomatognatikoetako eta inguruko anomalia eta gaixotasunei aurrea hartzeko eta horrelakoak diagnostikatzeko, tratatzeko eta

⁹ Konstituzio Auzitegiaren 3/2013 Epaia, 2013ko urtarrilaren 17koa [EAO, 37, 2013ko otsailaren 12koa], lanbide-elkargoen gaineko Andaluziako legeari buruzkoa; haren arabera, Estatuak bakarrik du eskumena elkargo bateko kide egiteko betebeharra eta salbuespenak ezartzeko. Ildo berean, Konstituzio Auzitegiaren 46/2013 Epaia, Extremadurako legeari buruzkoa, eta Konstituzio Auzitegiaren 50/2013 Epaia, Asturiasko legeari buruzkoa.

¹⁰ Zera xedatzen du 15/2007 Legeko 4. artikulua, "Legeak salbuetsitako jokaerak" izenburukoak: "Lehiaren defentsaren arloko xedapen komunitarioen behin-behineko aplikazioaren kalterik gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokaerei." Alabaina, honela dio aurrerago artikulua: "Kapitulu honetan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnei, eta lege-babesik gabe burutzen badira".

¹¹ Honela dio 25/2009 Legeko laugarren xedapen iragankorrak: "Hamabi hilabetean gehienez ere, Gobernuak lege-proiektu bat helarazi behar zien Gorte Nagusiei, zehazteko zer lanbidetan den nahitaezkoa elkargo bateko kide egitea, baina oraindik ez du egin halakorik. Proiektuak xedatu behar du elkargo bateko kide egiteko betebeharrak indarrean jarraituko duela hura profesionalen jarduna kontrolatzeko tresna eraginkor bat dela arrazoitzen den kasu eta egoeretan, zerbitzuen hartzailak hobeto babesteko, baita interes publiko bereziko gaiak larri eta zuzenean kaltetu daitezkeenean ere, hala nola pertsona fisikoen osasun, osotasun fisiko, segurtasun pertsonal eta segurtasun juridikoaren babesa".

¹² EAO, 280, azaroaren 22koa.



osatzeko gaituta daude. Espainian lan egiten badute beti edo noizean behin, banaka zein taldeka, behartuta daude odontologoek Espainiako elkargo ofizial bateko kide egitera, 13. artikulua zehazten duenez”.

Hain zuzen ere, zera dio 13. artikulua —elkargo batean sartzeari buruzkoa da 13. artikulua—:

"Nolanahiko odontologia-lanak egin nahi dituztenak, beren kontura edo besteren kontura aritu nahi izan edo erakunde publiko edo pribatu baten zerbitzura aritu nahi izan, behartuta daude, lanbidean jardunean hasi aurretik, jarduera nagusia duten udalerriko lanbide-elkargoan izen ematera"¹³.

Lehiaren Espainiako Batzordea zenak zioenez, elkargoek legediaren aldaketetara egokitzeko onartzen dituzten estatutuek ez lukete ezarri beharko inolaz ere elkargo bateko kide egiteko betebeharra edo, gutxienez, aipatu beharko lukete betebeharrori legezko maila ez duen arau batek ezartzen duela eta behin-behinekoa dela, alegia, lege-maila arau batek ezartzen duen artekoa¹⁴. Hortaz, harik eta Estatuko lege batek ezartzen duen arte elkargo bateko kide egiteko betebeharra, 25/2009 Legea urratzen duten xedapenak legez kontrakoak izango dira¹⁵.

11. Nahiz eta Haginlarien Euskal Kontseiluaren estatutuek ez duten arautzen elkargo bateko kide egiteko betebeharra, gutxienez, aipatu beharko lukete lanbidean ordezkatzeko eskumen eskusiboa (4.b) artikulua) behin-behinekoa dela, alegia, elkargo bateko kide egitea nahitaezkoa den bitartean iraungo duela. Alde horretatik, nolana ere, Lehiaren Euskal Agintaritzza jakitun da, osasun-arloko lanbide batez ari garenez gero, oso litekeena dela aurrerantzean ere nahitaezkoa izatea elkargo bateko kide egitea.

C) Zerbitzu-sariak

12. Abenduaren 22ko 25/2009 Legeak, Zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legeari egokitzeko zenbait lege aldatzen dituenak, artikulua berri bat gehitu zion otsailaren 13ko 2/1974 Legeari, lanbide-elkargoari buruzkoari: "14. artikulua. Zerbitzu-sariei buruzko gomendioak egiteko debekua Lanbide-elkargoek eta elkargoetako erakundeek ezin dute ezarri baremo orientagarririk ez beste orientabide, gomendio edo araurik profesionalen zerbitzu-sariei buruz laugarren xedapen gehigarriak dienetik kanpo". Hain zuzen ere, laugarren xedapen gehigarriak dio elkargoek egoera honetan bakarrik eman ditzaketela irizpide orientagarriak: kostuak tasatzeko laguntza eskatzen diotenean.

13. Haginlarien Euskal Kontseiluaren estatutuek 4.l) eta 9.10. artikuluetan arautzen dute gaia:

¹³ 12. eta 13. artikulua egokitu egin dira, Auzitegi Goreneko Hirugarren Salako Laugarren Sekzioak 2001eko ekainaren 25ean emandako epaiarekin bat etortzeko. Haren bidez, estomatologoei eta estomatologiari buruzko aipamenak balio gabe geratu ziren odontologo eta estomatologoek eta Kontseilu Nagusiaren estatutu orokorretako 2., 12. eta 13. artikuluetan —abenduaren 23ko 2828/1998 Errege Dekretuaren bidez onartu ziren odontologo eta estomatologoek estatutu orokorrak eta Kontseilu Nagusiarenak—.

¹⁴ Lehiaren Espainiako Batzordea, *op. cit.*, 42.

¹⁵ Lehiaren Espainiako Batzordea, *op. cit.*, 44.

**4. artikulua. Eginkizunak eta eskumenak**

Hauek dira Euskal Kontseiluaren eginkizunak:

(...)

l) Txostenak egitea Euskal Autonomia Erkidegoak arau-proiektuak egiten dituenean profesionalen jardunaren baldintza orokorrei buruz eta lanbidearen eginkizunei, zerbitzu-sariei eta bateraezintasun-araubideari buruz —zerbitzu-sariei buruzkoak, horiek tarifa edo zerga bidez finkatzen badira—.

9. artikulua. Osoko Bilkuraren eginkizunak

Hauek dira Osoko Bilkuraren eginkizunak:

(...)

10. Txostenak egitea Eusko Jaurlaritzak arauak egiten dituenean lanbideko jardunari buruz eta lanbidearen eginkizunei, esparruei, zerbitzu-sariei eta bateraezintasun-araubideari buruz —zerbitzu-sariei buruzkoak, horiek tarifa edo zerga bidez finkatzen badira—.

14. Argi dago Haginlarien Euskal Kontseiluaren estatutuek ez dutela aipatzen zerbitzu-sari orientagarririk; aitzitik, tarifa edo zerga bidez finkatzen diren zerbitzu-sariez bakarrik ari dira. Hala ere, arriskua dago batzuk eta besteak lotzeko, ez baita zehaztu zer kasutan arautu ditzakeen Eusko Jaurlaritzak tarifa edo zergak haginlari-lanbiderako. Beraz, kontuan izanda zer xedatzen duen 18/1997 Legeko 42.f) artikulua ("arau-egitasmoak direla-eta Gobernuak eskatzen dizkien irizpenak egitea, 54. artikulua araberan", alegia, "arauzko egitasmo guztiei buruzko txostena, lege honetan garatutako gaiari buruzkoa izanez gero"), gure proposamena da zerbitzu-sariei buruzko aipamen oro ezabatzea eta aipatutako xedapenak idaztea 18/1997 Legeko 42.f) eta 54. artikuluei bakarrik jarraituz.

IV. ONDORIOAK

Lehena. Elkargodun lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia defendatzeko 15/2007 Legea bete behar dute, bere osotasunean.

Bigarrena. Kontseiluak tituludun lanbide baten ordezkaritza eta defentsa gorenaz arduratzen dira eta, horretarako, zera izan behar dute oinarri: osatzen dituzten elkargoen interesen defentsa ez ezik, elkargoetako kideen zerbitzuak kontsumitzen eta erabiltzen dituztenen interesen babesa, gizartearen interes eta behar orokorrekin bat betiere.

Hirugarrena. Lehiaren Euskal Agintaritzaren ustez, beharrezkoa da Haginlarien Euskal Kontseiluaren estatutuetako artikulua hauek aldatzea: 4., 4.j) eta 9.10. —txosten osoan barrena aipatu ditugu—.

Bilbo, 2013ko abenduaren 17a



LEHENDAKARIA
MARÍA PILAR CANEDO ARRILLAGA

KIDEA
NATIVIDAD GOÑI URRIZA

IDAZKARIA
IBON ÁLVAREZ CASADO

KIDEA
RAFAEL ITURRIAGA NIEVA